

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeen Gardentasunari buruzko Erreklamazio-Batzordeko kideen izendapenak luzatzea onesten duena.**

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 37. zenbakian, otsailaren 24an, asteazkenean) onestea arauen arloko bultzada erabakigarria izan zen Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-sektore publikoko erakundeen borondatea betetzeko: foru erakundeen kalitatea hobetzea eta, ondorioz, erakunde horien helburu nagusia diren Bizkaiko herritarrei egin beharreko kontu-ematea egiten laguntzea.

Ildo horretan, gardentasuna, foru gobernuaren kalitate instituzional eta demokratikoa definitzen duen funtsezko elementua denez, publikotasun aktiboaren betebeharrak formalen batura baino gehiago da. Kudeaketa hobetzeko tresna bat da, gobernu irekia indartuz erakundearen legimititatea finkatu nahi duena.

Kontuak egoki ematea oinarri saihestezina da gobernu irekia indartzen laguntzeko; beraz, kontuak emateak legitimatu egiten du arlo publikoak Bizkaiko foru erakundeen eguneroko lanean duen jarduna.

Testuinguru horretan, aipatutako gardentasunari buruzko foru arau horrek Gardentasunari buruzko Erreklamazio Batzordea sortu zuen, bere eginkizunetarako autonomia duen kide anitzeko organo independente legez, nagusiki informazio publikoa jasotzeko eskubidearekiko berariazko edo ustezko ukapenaren inguruko erreklamazioak ebazteko. Gainera, beste eginkizun gehigarri batzuk ere atxikitzen zaizkio, gardentasun-politika bultzatzeko lankidetzakoak zein foru enplegu publikoko organo, kargu edo arloen eremu horretako politikaren jardueraren kontrolekoak eta jarraipenekoak.

Aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako aurreikuspena garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko foru sektore publikoko aipatutako Gardentasunari buruzko Erreklamazio Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretua onetsi zuen (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 147. zenbakian, abuztuaren 3an).

Halaber, 2016ko urriaren 18ko erabaki baten bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeko kideen izendapena onetsi zuen, eta honela eratuta geratu zen:

1. Titularrak:

- María Barrena Ezcurra andrea.
- Amaia ZurbanoBeaskoetxea Larraudogoitia andrea.
- Iñigo Alvear Lekue jauna.

2. Ordezkoak:

- Juan Carlos González Olea jauna.
- César Alonso Campo jauna.
- Begoña Martínez López, andrea; aurrerago, María Eugenia Maté Mendieta andrea izendatu zen haren ordez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko maiatzaren 29an onetsitako izendapena dela bide.

Izendapen horiek publiko egin ziren iragarki bidez, bai 2016ko urriaren 24ko Bizkaiko Aldizkarian, bai Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Arauaren 28.5 artikuluan eta 128/2016 Foru Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, izendapenak lau urterako dira,



eta azken dekretu horrek hau ezartzen du: «Agintaldia beste lau urtez luzatu ahal izango da, Bizkaiko Foru Aldundiak hala egitea erabakitzen badu, Erreklamazioen Batzordea atxikita dagoen foru saileko titularraren proposamenez».

Ildo horretan, aurreko agintaldiaren amaierara iritsita, 2016ko urriaren 18ko erabakiaren bidez onetsitako Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeko kideen izendapenak eta 2018 maiatzaren 29ko erabakiaren bidez aldatutako izendapenak lau urtez luzatzea onartu behar da.

Azaldutakoa dela bide, eta kontuan hartuta zer xedatzen den Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 28. eta 66. artikuluetan zein Ahdun Nagusiaren Kabinetea eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea arautzen dituen erregelamendua onetsi duen otsailaren 4ko 11/2020 Foru Dekretuan, idazki hau sinatzen duen teknikariak erabaki-proposamen hau aurkezten dizu, egoki baderitzozu Bizkaiko Foru Aldundiari helaraz diezaiozun, Aldundiak aztertu eta, hala badagokio, onar dezan:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2016ko urriaren 18ko erabakiaren bidez onetsitako eta 2018ko maiatzaren 29ko erabakiaren bidez aldatutako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeko kideen izendapenak lau urtez luzatzea onestea.

Luzapen hori ezarrita, hau da Erreklamazioen Batzordearen osaera:

A) *Titularrak:*

- María Barrena Ezcurra andrea
- Amaia Zurbanobeascochea Laraudogoitia andrea
- Iñigo Alvear Lecue jauna

B) *Ordezkoak:*

1. Juan Carlos Gonzalez Olea jauna
2. César Alonso Campo jauna
3. María Eugenia Maté Mendieta andrea

Bigarrena: Erabaki hau interesdunei, Bizkaiko Foru Aldundiko foru sail guztietako zerbitzu orokorrei eta Ahdun Nagusiaren Kabineteko Zerbitzu Orokorrei jakinaraztea, baita Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeetako kudeaketa/zuzendaritza orokorrei ere.

Hirugarrena: Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian eta baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere.

Bilbon, 2020ko urriaren 5ean.—Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua eta Idazkaria, Ibone Bengoetxea Otaolea